

IRAKURKETA PLANA



Egileak: Mari Jose Busto
Irantzu Jaka



artxandape
ikastola

AURKIBIDEA

Portada	1
Aurkibidea	2
Aurkezpena	3
Helburuak orokorrak	3
HH	3
LH	4
LH 1.zikloa	4
LH 2.zikloa	5
LH 3.zikloa	6
DBH	6
Ebaluazioa	7
Eranskina	9

AURKEZPENA

“Irakurketa adimenarentzat ariketa fisikoa gorputzarentzat bezain beharrezkoa da.”

Joseph Addison

Irakurketa Plan batez mintzo garenean, ezein pertsonak ikasi eta garatu behar duen irakurketa gaitasunaren lanketaz mintzo gara. Horixe da hain zuzen ere egitasmo honen atzean dagoen xede nagusia: gure ikasleak, ikasketak amaitzean, haien adinari dagozkion eta haien giza garapenerako eta garapen profesionalerako beharrezkoak izango dituzten hizkuntz gaitasunen jabe izatea.

Izan ere, irakurtzen ikasten dugunean, abilezia jakin bat garatzen dugu, eta abilezia hori oinarritzkoa da eskolara joateko adina duten pertsonentzat. Arrazoia agerikoa da: idatziz transmititzen da jakintza gehiena. Hurrek ez badute ondo irakurtzen, ezin dute ondo ulertu idatzizko euskarri batean dagoen edozein dokumentu, ezin dituzte ulertu gero eta liburu eta dokumentu zailgoak eta, horrenbestez, zailtasunak dituzte beste jakintza-arlo batzuetako irakaspenak bereganatzeko.

Horiek horrela, ikasleek ahalik eta prestakuntza onena jasotze aldera, gure helburua ikastolari egokitutako irakurketa plan bat prestatzea izan da, HHTik hasi eta DBHra bitartean adin ezberdinetako ikasleei zuzendutako ekintza batzuk prestatu eta sistematizatzea alegia. Ekintzok, batik bat, hizkuntza arloetan bideratuko badira ere, uste dugu gainerako arloetara ere zabaldu beharko liratekeela, azken finean, arlo guztietako ezagupenak ikasteko ezinbesteko tresna delako irakurketa.

1. HELBURU OROKORRAK

- Ulermen lantzea eduki berriak ikasteko oinarri gisa (hizkuntzetan eta gainerako arloetan).
- Haur, gazte eta nerabeengan irakurtzeko zaletasuna sustatzea.
- Irakurketa informazio eta entretenimendu iturri gisa balioestea.
- Bibliotekak esparru gisa duen funtzioa ezagutaraztea.

2. Haur Hezkuntza

Ezinbestekoa da txiki-txikitatik irakurketa prozesuan murgiltzea, letrak irakurtzen hasi aurretik beste irakurketa batzuei ekin behar zaielako, hala nola, argazkiak, irudiak, zenbakiak, piktogramak, ...

Planak berak ez du HH bereziki aipatzen baina gure ikastolan ikasleek irakur idazketa bultzatzeko eta ondorengo urteetan jarraitzeko motibazioa sustatzearekin lan egiten da.

2.1 HELBURUAK

- Irakurtzeko gogoia eta interesa sortzea.
- Testu ezberdinekin (ipuinak, errimak, irudiak, ...) kontaktuan jartzea.
- Mezu sinpleak kodigo ezberdinetan dezifratzea.

2.2 EKINTZAK

- Gelan liburutegi txiki bat sortzen da HH hastapenean eta etapa honen amaieran liburutegira joaten da irakurtzeko zaletasuna sortzeko.
- Gurasoak inplikatzeko dira irakurketa hastapenean etxetik liburuak bidaltzean eta horietan hasierak irudiak eta gero testu errazak lantzen dira.

3. Lehen Hezkuntza

3.1 LH 1. ZIKLOA

Etapa honetan irakurle konpetenteak lortzeko bidean lehenengo urratsak ematen dira. Fonemak identifikatzearekin hasten dira hitzaren irakurketarekin amaitzeko eta honela, irakurketa mekanika on bat izateko "kontzientzia fonologikoa" garatzeari ekiten diote.

3.1.1 HELBURUAK

- Irakurtzeko gogoia eta interesa sortzea testu ezberdinekin (ipuinak, errimak, ...).
- Irakur ulermena eta hiztegia zabaltzea.
- Entzun edo irakurri ostean istorio txiki bat kontatzeko gai izatea.
- Bibliotekaren ezagutza indartzea (gelakoa, ikastolakoa, udalekoa, ...)

3.1.2 EKINTZAK

- Egunero sistematikoki irakurketa mota desberdinak (ipuin errazak, berriak, errimak) egiten dira klasean.
- Ikasturterako irakur liburu batzuk aukeratzen dira eta liburuok etxera eramaten dituzte ikasleek familiak irakurketetan ere inplikatzeko. Hau guztia gauzatu dela egiaztatzeko erregistro orri bat betetzen da.
- Irakurritako istorioak elkar banatzen dituzte gelan kontatuta.
- Urtero ipuin kontalari bat gonbidatzen da ikastolara haurren artean irakurtzeko zaletasuna sustatzeko.
- Udal liburutegira bisita bat egiten da honen funtzionamendua bertatik bertara ezagutzeko.

3.2 LH 2.ZIKLOA

Etap honetan irakurketa teknika (intonazioa, abiadura, erritmoa) eta ulermena lantzen dira batez ere. Horretarako ipuin mota ezberdinak ematen zaizkie aukeran ikasleei (abenturazkoak, fikziozkoak, beldurrezkoak, ...), bakoitzak gustuko duen ildoari jarraitzen dio eta modu honetan irakur ohitura sustatu nahi da.

3.2.1 HELBURUAK

- Irakurketarako ahoskatzea, intonazioa, abiadura eta erritmoa hobetzea.
- Irakur ulermena hobetzea.
- Hiztegia zabaltzea.
- Testuen egiturez jabetzea (hasierako egoera, korapiloa, ...) eta baita ideia orokorra ere.
- Pertsonaiak garrantziaren arabera sailkatzea (protagonista, bigarren mailakoa, ...).
- Hiztegiaren erabilera hastea.
- Gelako eta ikastolako bibliotekaren erabilera sustatzea.
- Idazleren bat ezagutzea.

3.2.3 EKINTZAK

- Ziklo osoko ikasleak irakurketa gaitasunaren arabera sailkatzen dira eta irakasle batekin behar izanen araberako trebeziak lantzen dira arabera (ahoskatzea, intonazioa, abiadura, ulermena ...).
- Hamar liburu hautatzen dira euskaraz ikasturtean zehar irakurtzeko eta horien ulermena lantzeko fitxa batzuk egiten dituzte guztiak elkartuz liburuxka bat osatuz.
- Familien inplikazioa errazteko oporraldian gaztelaniazko bina liburu irakurtzen dituzte Gabonetan eta Aste Santuan. Udan ere, beste bi liburu irakurtzen dituzte; bat euskaraz eta beste bat gazteleraz.
- Idazle bat gonbidatzen da bere liburua irakurri ostean topaketa bat izateko.
- Ikastolako biblioteca bisitatzen da honen funtzionamendua ezagutzeko.

3.3 LH 3.ZIKLOA

Ziklo honetan, ulermena lantzen da bereziki. Izan ere, ikasleak dagoeneko ondo menderatzen baitu irakurketa teknika eta garrantzia handiagoa ematen zaio testuaren mezua, egitura eta mota identifikatzeari.

3.3.1 HELBURUAK

- Irakurketan ahoskatze, intonazio, abiadura eta erritmo egokia izatea.
- Irakur ulermena lortzea.
- Hiztegia zabaltzea.
- Testuen egituraz jabetzea.
- Testu mota ezberdinak identifikatzea.
- Testu bateko ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezberdintzea.
- Hiztegiaren erabilera sistematikoa sustatzea.
- Gelako eta ikastolako bibliotekaren erabilera sustatzea.
- Idazleekin topaketak antolatzea euren lanez jabetzeko.

3.3.2 EKINTZAK

- Testu ezberdinak (ipuinak ,albisteak, antzerkiak, ...) irakurtzen dira ulermena lantzeko, hiztegia zabaltzeko eta testu egitura ezberdinez jabetzeko eta identifikatzeko.
- Zazpi liburu hautatzen dira euskaraz ikasturtean zehar irakurtzeko eta horien ulermena lantzeko jarduera ezberdinak (laburpenak, pertsonaien deskribapena, ideiak nagusiak eta bigarren mailakoak ...) egiten dituzte.
- Udan irakurritako liburuaren idazlearekin topaketa egiten dute.
- Familien inplikazioa errazteko oporraldian gaztelaniazko bina liburu irakurtzen dituzte Gabonetan eta Aste Santuan. Udan ere, beste bi liburu irakurtzen dituzte; bat euskaraz eta beste bat gazteleraz.

4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Derrigorrezko hezkuntzako azken etapa honetan, ikasleak irakurle konpetente bihurtzeko nahitaezkoak dituen alderdiak lantzen dira, ez soilik hizkuntza arloetan baita gainerakoetan ere. Horretarako batik bat honako atalak landuko dira: ezein testuren informazio globala atzematea, interpretatzea, testuaren formari eta edukiari buruzko gogoeta egitea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.

4.1 HELBURUAK

- Era askotako eremuetatik jasotako testu idatziak (gazte literatura, literatura klasikoa, jakintza arlo desberdinetako testuak, ...) ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea.
- Ereduzko testuak (irakasleak agindutakoak) eta norberak hautatutako testuak (gelako liburutegia) irakurritik literatura obrez gozatzea.
- Literaturaren bilakaera historikoaren oinarrizko etapetako obra batzuk irakurtzea eta interpretatzea.
- Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko jarduerak antolatzea (hala nola, tailer digitalak eta Durangoko Azoka).
- Irakurketa modu egokian gauzatzeko intonazioa, erritmoa eta ahoskera zaindua errespetatzea.

4.2 EKINTZAK

- Ikasgai gehienetan mota ezberdinetako testuak (zientifikoak, narrazio testuak, olerkiak, artikulak, ...) irakurtzen dira jakintza arlo bakoitzeko eduki berriak lantzeko, bakoitza dagokion testuinguruan interpretatzeko eta kasuan kasu ikuspegi kritikoz interpretatzeko (hala nola, literatur obrak, testu historikoak, testu zientifikoak, ...).
- Euskara eta Gaztelania arloetan, gazte-literaturako lanak eta literatura tradizionaleko lanak (ikasleen adinerako eta intereserako egokiak direnak) irakurtzen dira eta horien ulermena lantzeko jardura ezberdinak egiten dira (froga idatziak, azterketak edo laburpenak, ahozko aurkezpenak, ...).
- Gaztelania eta Euskal literaturako ereduak obrak irakurtzen eta interpretatzen dira norberaren kultur identitatea eraikitzeko.
- Ekintza ezberdinak antolatzen dira irakurtzeko zaletasuna modu erakargarri baten lantzeko eta euskal idazleekiko gerturatze bat ahalbidetzeko: hala nola, ipuin tailer digitala arloa non testu mota ezberdinak irakurtzen diren eta ariketa/jolas ezberdinen bidez ikasleek ulermena lantzen duten eta Durangoko Azokarako irteera non ikasleek urteetan zehar irakurri dituzten idazleekin hartu eman zuzena izan dezaketen eta euren kultura gertuagotik ezagut dezaketen.
- Jakintza arlo ezberdinetan ikasleek ahots goraz irakurtzen dituzte egokitu zaizkien testuak eta eginkizun horretarako beharrezkoak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa lantzen dira.

EBALUAZIOA

Irakurketa plan honen helburuak betetzen diren neurtzeko item batzuk proposatu ditugu ikastolako ziklo bakoitzeko memorian txertatzeko eta planaren beraren nondik norakoak neurtzeko:

ITEMAK	BAI	EZ	HOBEKUNTZA
Irakurketa lantzeko egindako metodologia egokia izan da.			
Landutako ekintzak egokiak izan dira.			
Ikasleek euren mailari egokitutako ulermen maila lortu dute.			
Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko ekintzak egokiak izan dira.			

Guztiarekin ere ezinbestekotzat jotzen dugu ikasturte bukaeran planak kontenplatuta dituen puntuak bete diren egiaztatzea eta behar izanen arabera moldaketak egitea. Izan ere, irakurketa lantzeko moduak milaka izan daitezke, teknologiak berrikuntza asko dakarzkigun bezala, irakur zaletasuna eta ulermena lantzeko bide berriak ere sortu ahalko liratekeelako. Honela bada planak malguki jokatu behar du momentuko behar izanei erantzuna emateko. Aurten, irakurketa lantzeko baliabide berriak (eranskina) aztertu dira DBHen, etapako batzarrean aurkeztu dira eta lanketa bide berri batzuk praktikan jartzea adostu da.